

II. ERANSKINA

HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ETA BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKOAREN ARTEKOA, UDAL TITULARTASUNEKO MUSIKA-ESKOLAK ETA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK SENDOTZEKO HELBURUZ IZENPETUA.

Vitoria-Gasteiz, 2019 ko APIRILA ren 16 a

BILDU DIRA

Alde batetik, Hezkuntzako sailburu Cristina Uriarte Toledo andrea.

Bestetik, BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKOAREN-ko legezko ordezkaria.

HONAKO HAU AZALTZEN DUTE

Lehenengoa.- Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Aginduari bidez (2018ko abenduaren 13ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeentzako deialdia iragarri zen, udalek eta mankomunitateek laguntza-eskabideak aurkeztu ditzaten udal-titulartasuneko musika-eskoletan eta musika-kontserbatorio profesionaletan egungo eskaintza sendotzeko.

Bigarrena.- BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKOAREN, kultura eta musika hedatzeko jardueren barruan, eskabide hori aurkeztu du, aipatutako aginduari jarraituz.

Hirugarrena.- Hezkuntza Sailak, agindu horretan xedatutakoa oinarri hartuta, BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKOAREN aurkeztutako eskabidea onartu du, eta, horrenbestez, hitzarmen hau sinatzen du, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Lege-esparrua.

Hitzarmen honetan aintzat hartzen diren zehaztapenak bat datoz Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Aginduan ezarritako esparruarekin. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeentzako deialdia iragarri zen, udalek eta mankomunitateek musika-eskoletarako eta musika-kontserbatorio profesionaletarako laguntza-eskabideak aurkeztu ditzaten.

Bigarrena.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Hezkuntza Sailaren eta udala edo mankomunitate sinatzailearen arteko elkarlana formalizatzea, tokiko erakunde horren titulartasuneko musika-eskola edo kontserbatorioa laguntzeko, eta, azken finean, zentro horrentzako finantzaketa-esparru egonkor bat lortzeko.

Hirugarrena.- Egingo diren hezkuntza-ekintzak.

Ikastegi bakoitzaren urteko plangintzan zehaztutako ekintzak gauzatuko dira. Izan ere, musika-eskola edo kontserbatorio profesional bakoitzak prestatu beharko du plan hori, eta agindu horren 8. artikuluan ezarritako jarraipen-batzordearen esku utzi.

Laugarrena.-Onuradunak.

Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri zenean Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden honako musika-ikastegi hauen erakunde titularrak, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko irakastetxeen erregistroan izena eman eta bertan agertzen direnean.

a.- Titularitate publikoa duten musika-eskolak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak arautuak, dagokion baimena baldin badute arautu gabeko irakaskuntza emateko.

b.- Udal titulartasuna duten kontserbatorioak, irakaskuntza arautua emateko baimena dutenak, abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuaren arabera.

Bosgarrena.- Aldeen ekarpenak.

Proiektuan jasotako helburuak lortzeko eta proiektuko ekintzak gauzatzeko, sinatzaileek ekarpen eta konpromiso hauek hitzartu dituzte:

A) Toki-erakunde –udal edo mankomunitate– sinatzailearen aldetik:

A 1 – Ekarpenak.

- Giza baliabideak eta baliabide materialak, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan zehaztutakoak. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoak, arautu gabea, ematen duten ikastegiak –musika-eskolak– sortzeko prozesua eta haien jarduna arautzen dira.

- Giza baliabideak eta baliabide materialak, martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuan zehaztutakoak. Dekretu horren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastegiei –musika-kontserbatorio profesionalei– bete behar dituzten gutxieneko baldintzak finkatzen dira.

- Ikastegiari lotutako hainbat alderdi (kontrola, antolaketa, administrazioa, garbitasuna, mantentze-lanak eta beste zerbitzu batzuk) aintzat hartzeko eta bermatzeko behar diren langile egokiak.

- Hezkuntza-proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko behar beste baliabide ekonomiko, alde batera utzita Hezkuntza Sailaren diru-laguntzen bidez lor daitezkeenak.

A 2 – Konpromisoak.

- Hezkuntza Sailaren diru-laguntza eman den helbururako bakarrik erabiltzea, hitzarmen honen bigarren klausulan adierazitakoa jarraituz.

- Esleituta duen funtzioa betetzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentazio osagarri ematea Jarraipen Batzordeari.

-Haren titulartasuneko musika-eskola edo kontserbatorioaren funtzionamendua zuzenbidearen arabera dela bermatzea, bai antolaketari eta langileen erregimenari dagokionez, bai zentroak jasotzen dituen baliabideen kudeaketa egokiari dagokionez, honako hauen bidez: kalitate-programa bat, zerbitzu egokia eta herritar guztiek berdintasunean hantzen emateko aukera izatea.

-Haren titulartasuneko musika-eskolaren edo kontserbatorioaren antolaketa-esparrua eta kostuak honako parametro hauetara egokitzeke mekanismoak ezartzea:

a) Irakaskuntza-jardunaren ordainketa gastu arruntaren % 75 izango da gehienez.

b) Administrazioeko eta zerbitzuetako langileen kostuak gastu arruntetan duen eraginak ez du gaindituko guztizko gastu arruntaren % 11, eta kudeaketa ekonomikoa barne hartuko du, horrelakorik balego.

c) Ekipamendu- eta funtzionamendu-gastuek ez dute guztizko gastu arruntaren % 14 gaitutuko.

-Ikasleentzat prezio publikoak ezartzea, eskolen kostuaren heren bat berdintzeko.

-Haren titulartasuneko musika-eskolaren edo kontserbatorioaren autofinantzaketarako bideak sustatzea.

B) Hezkuntza Sailaren aldetik:

B1-Ekarpen ekonomikoak.

-Hezkuntza Sailak, 2019ko apirilaren 11ko Ebazpenaren bidez, 169843 euroko diru-laguntza eman dio tokiko erakunde sinatzaileari –udal edo mankomunitateari–, bere titulartasuneko musika-eskolako edo musika-kontserbatorio profesionaleko 2017-18 ikasturteko kostuak finantzatzeko.

Laguntzaren xedea betetzen dela ikuskatuko du horretarako eraturako jarraipen-batzordeak.

B2-konpromisoak

- Toki-administrazioek eskaintzen dituzten musika-eskolen finantzaketa-prozesuarekin jarraitzea –Hezkuntza Sailaren finantzaketa Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean aurreikusitako ehunekora gerturatuz–, urtero diru-laguntzen deialdiak eginez eta hitzarmen honen baldintzetan, behintzat beste finantzaketa-hitzarmen bat izenpetu arte.

Seigarrena.– Diru-laguntza ordaintzeko epeak.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak epe hauetan ordainduko du aurreko klausulan adierazitako diru-laguntza:

1.- Laguntzaren % 15,03, hitzarmen hau sinatu ostean, eta hitzarmen honen lehenengo klausulan aipatutako Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko apirilaren 11ko Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu ondoren, 2018ko azaroaren 27ko Agindua oinarri hartuta, eta agindu horren 16. artikuluen 1. atalean adierazitako epea behin amaituta.

2.- Bigarren ordainketa-agindu bat, justifikazioaren dokumentazioa oinarritzat hartuta egindako likidazioaren emaitzaren kopuruarena.

Zazpigarrena.- Ez betetzea eta itzultzeko prozedura.

Erakunde sinatzaileak –udalak edo mankomunitateak– diru-laguntza eskatu eta eman zen helbururako erabiltzen ez badu, diru-laguntza emateko zergatia izan zen jarduera burutzen ez badu, diru-laguntza eskatzeko adierazitako xedeetarako erabili duela justifikatzen ez badu, edo, orokorrean, ez baditu betetzen 2018ko azaroaren 27ko Aginduan xedatutako betebeharrak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 53. artikulua xedatutako betebeharrak edo hitzarmen honetan adierazitakoak, jasotako diru-kopurua itzuli beharko du, baita sortutako legezko interesak ere. Horretarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Adierazitako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorio guztietarako.

Zortzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmena sinatzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2019ko abuztuaren 30era arte egongo da indarrean.

Bederatzigarrena.- Berme-klausula.

Hitzarmen honetan sartu da bertan jasotako konpromiso finantzarioak betetzen direla bermatzeko klausula, betiere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aipatu legea betez, baimena ematen zaio Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari sistema bat adostu dezan, EAEko Administrazio Orokorrak hitzarmena sinatu duen tokiko erakundeari egin beharreko ordainketak ezarritako baldintzetan egiten ez badizkio egin gabeko finantza transferentziak atxikitzeko; hartara, sistema horren arabera, hurrengo aurrekontu ekitaldian egingo zaizkio ordainketok kaltetutako tokiko erakundeari. Ordainketok, gainera, hurrengo aurrekontu-ekitaldiko lehendabiziko hiru hilabeteetan egin beharko dira.

Hamargarrena.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta horrek dakartzan ondorioak aintzat hartuko dira aplikatzean ager daitezkeen gorabeherak ebazteko.

Ados daudela egiaztatzeko, interesdunek hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

HEZKUNTZAKO SAILBURUA
CRISTINA URIARTE TOLEDO

BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA
LEGEZKO ORDEZKARIA.

IZEN-ABIZENAK:

MARIA ARANZAZU GASTESI IRIARTE

CRISTINA
URIARTE
TOLEDO

Firmado digitalmente
por CRISTINA
URIARTE TOLEDO
Fecha: 2019.05.06
12:25:50 +02'00'

15952041T MARIA
ARANZAZU
GASTESI (R:
P7002102G)

Digitally signed by 15952041T MARIA
ARANZAZU GASTESI (R: P7002102G)
DN: c=ES, o=BEASAINGO LOINATZ MUSIKA
ESKOLA, 2.5.4.97=VATES-P7002102G,
ou=Ordezkan ziurtagiria - Certificado de
representante, cn=15952041T MARIA
ARANZAZU GASTESI (R: P7002102G),
givenName=MARIA ARANZAZU, sn=GASTESI
IRIARTE, serialNumber=15952041T
Date: 2019.04.16 09:21:54 +02'00'